



«Natur baliabideen kontrola publikoa ez izatea inkoherentzia da»

Gazumen Eusko Jaurlaritzak eraiki nahi duen haize-errota parkeaz galdetu nahi genion. Elkarrizketa egin eta gutxira jakin dugu Legebiltzarrak energia plana geratzeko eskatu duela. Gazumez gutxi hitz egin du, bere ustez, EAEn egituratutako energia politika oinarritik dagoelako ustelduta. Erro zimel horiez eta etorkizuneko bidez galdetu diogu.

ONINTZA IRURETA

Argazkia: Argia

Gazume Gipuzkoako Errezil, Azpeitia eta Asteasu herrietako lurretan dagoen mendi muinoa da. Erriotik, esate baterako, ederki ikusten da. Aitziber Sarobe biologoa Zarauzko Arkamurka Natur Elkar-terko kidea da. Beste askorekin batera, Eusko Jaurlaritzak proposatu duen parke eolikoaren kontra egin du. Sarobe ez dago eolikoak jartzea-

ren aurka, baina energia politikan EAEk ba omen du aurreragoko lanik: "Proiektu eolikoak ez daude eraikita energia beharren diskurtsoaren gainean. Kontsumo etengabearen eta enpresa batzuen etekinean oinarritutako planteamendua da. Horregatik egiten dugu planto hasieratik. Energia eolikoa ezinbestekoa dugu, baina bide honetatik ez".

Zergatik zaude Gazumeko haize-erroten kontra?

Gazumeko eolikoei kontra egiten diegu, Gazumerako planteatu den zentral eolikoaren eredu hori, hau da energia eolikoaren aprobetxamendurako Jaurlaritzak prestatu digun markoa bera, ez dugulako onartzen. Ekologistok honetan ez gara inoiz hipokritak izan, oso garbi daukagu

“Gazumekoa *rekotxineoa* da”

Legebiltzarrak Jaurlaritzari energia eolikoaren plana eteteko eskatu baino lehenago egindako elkarrizketa dela nabari dute galderek. Erantzunek merezi dutelakoan mantendu ditugu.

Zein egoeratan dago Gazumeko haize-errotak parkea?

Gazumekoa ‘rekotxineoa’ da. Eoliko-errendan bigarren taldean zegoen, interes gutxiagokoa, zentral txikiagoa zelako eta era berean ingurumen inpaktu handiagokoa. Lehenengo taldekoak egin gabe daude eta bigarren taldera jo dute. Bazar bat dirudi.

Orain sozialistak daude Jaurlaritzan. Zer espero duzu?

Aldaketa txikienik ere ez. Orokorrean, energia politikan, ez dago alderdien arteko kritikarik, ez dago beste energia politika baten beharra edo horretarako bide posiblea planteatzen duen alderdi politikorik.

Parkea atzera botatzeko aukerarik ba al da?

Ingurumen eraginaren txostena negatiboa (eraginak jasanezinak direla ondorioztatzea) izatea da modu bakarra. Beno, beste aukera erabaki politikoa da, baina horrek ondorio ekonomikoak dauka dago-

eneko parkea enpresa pribatuari esleituta dago-eta.

Eta zer tankera dauka ingurumen txostenak?

Txostena txapuzeroa da, beste parke eolikoetan bezalatsu. Partikularrek, natur eta mendi taldeek eta administrazioek (hainbat udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak) alegazioak egin dizkiegu. Ingurumen txostenean haize-erroten jarduera osoak kokagune horretan izango duen eragina neurtzen du. Baina horretarako, aurrez, eremu horretako natur balioen ikerketa serioa egin behar da. Inoiz ez da ikerketa serioerik egiten, oraingoan ere ez.

Legebiltzarrak plana eteteko eskatu berri du.

Beharrezkoa zen horrelako erabaki bat. Hiru lurraldeetako Batzar Orokorak eta proposatutako haize-erroten parkeek eragina izango luketen udalerririk gehienak kontra azaldu dira, eta zer esanik ez natur talde eta mendizale elkarteak. Orain, parlamentuak berak onartu du lege hori ez dela behar bezala tramitatu eta berrikuspenera behar duela. Guk aspaldi aldarrikatu duguna berretsi dute: energia eolikoaren inguruko asmoak eta legedia bera dauden bezala onartezinak direla.

Euskal Herriak arazoa daukala energiarekin. Batetik, Euskal Herriak subirautea balu, Europako bigarren herri industrializatuena izango litzateke. Ez hori bakarrik, demografia tasari dagokionez, aurrenekoa ez balitz oso hurbil ibiliko litzateke. Paisaia horren barruan, daukagun bizi mailarekin, ezinbestekoa da onartzea energia kontsumo handia daukagula. Bestetik, gure bizi mailari ez diogu uko egiten, horretan beste edozein herri bezain kontsumista gara.

Beraz, batetik, gure energia beharrik handiak dira, eta bestetik, herri bezala ez daukagu energiara bidertutako natur baliabiderik horri aurre egiteko. Oso-oso defizitarioak gara. Horretan seguru asko Eusko Jaurlaritzak egiten duen diagnostiko bera egiten dugu.

Zer proposatzen duzu egoera defizitarioari aurre egiteko?

Eusko Jaurlaritzak bost urtetik behin egiten duen Energia Planean kontsumoak etengabe gora egingo duela hartzen da kontuan. Diagnostiko horren gainean egindako edozein plangintzari esango diogu ezetz. Herri bezala daukagun lehenengo obligazioa, eta ez bakarrik ekonomikoa morala ere bai, kontsumo hori murriztea da. Zeren ez du balio “Garoña itxi!” esan eta gero Frantziako zentral nuklearretatik datorren kablea gurean onartzea.

Kontsumoa murriztu eta zer gehiago?

Eusko Jaurlaritzaren plangintza zertan oinarrituta dagoen ahaztuta ere, beste akats handi bat ikusten diogu Energia Planari.

Bost urteroko zehazten da EAEk zenbat energia beharko duen. Bada, diagnosi horiek, Energiaren Euskal Erakundearen bitartez, energiaren alorra kudeatzen duten enpresa pribatuek Eusko Jaurlaritzarentzat egindako planak dira. Erakunde hori osatzen duten hainbat enpresa pribatuk eraturako klusterrak egiten ditu planak Jaurlaritzarentzat, alegia, enpresa horiek ezartzen dute zenbat kilowatt-eko beharra dugun, eta Jaurlaritzak kilowatt horien bidean hasten da Energia Planean zehaztutako beharrak prestatzen. Euskal Herrian zenbat kilowatt behar ditugun publikoki hartu beharreko erabakia da. Kontsumo-arena bezala, horrek ere ariketa arduratsua izan behar du. Bateren batek planteatu beharko ditu gauza horiek, gutxienez maila filosofikoan, jakiteko zertan ari garen.

Natur baliabideak eta horien kudeaketa partaidetza publikoaren bidez gestionatu beharko lirateke. Baliabide horiek ez baitira gureak, hurrengoei utzi behar dizkiegu, gure obligazioa da horiek kontserbatzea. Kontrola publikoa ez izatea inkoherentzia da.

Bi ardatz nagusi aipatu dituzu energia politikan: kontsumoa murriztea eta kontrol publikoa. Zein dira zure ustez beste oinarri garrantzitsuak?

Bata, energia “alternatiboa” kontzeptua berreskuratzea eta bestea energia ekoizpenaren deszentralizazioa.

Jaurlaritzak jarraian aurkeztu dituen 3E-2000, 2005 eta 2010 planetan energia baliabideetan oso defizitarioak gairela ateratzen zaio. Energia alternatiboen bila aspaldi hasi ziren, horietako bat eolikoa. Lehen alternatibo deitutako energia iturriak (haizea, olatuak, eguzkia...) ordea, gaur egun ez dira ezeren alternatiba, osagarri baizik. Guk zera diogu: berriztagarri esaten dugunean alternatibaren kontzeptura itzuli behar dugula. Horrek baino ez du murriztuko energia kontsumoa, alternatiba izateak.

Zer esan nahi duzu horrekin, energia berriztagarri deitzen diegun horiekin bakarrik ez gairela gai izango gure kontsumoari erantzuteko eta murriztu egin beharko dugula derrigorrez?

Oraingo kontsumo maila estal- tzerira iritsiko bagina oso ondo, baina kontuan izan gure natur baliabide guztiak xahutu behar- ko ditugula gure bizi maila man- tentzeko. Prest bagaude aurrera, jendeak hori nahi badu, zergatik ez! Baina jarri mahai gainean planteamendu hori. Esan jen- deari itsasoa zentraz bezeko dugula, mendi eta haran guztiak haize-errotez, etxe guztiak eguz- ki plakez eta etor litezkeen gain- erako teknologia guztiak onar- tuko ditugula.

Deszentralizazioa aipatu duzu lau- garren oinarri.

Jaurlaritzaren Energia Eolikoar- en Lurraldearen Zatikako Pla- nak bi ezaugarri ditu: zentral handiak direla eta mendilerro- tan daudela. Egitura dago anto- latuta enpresa handi gutxi batzuei etekin asko eta azkar emateko. Horretarako zentral handiak behar dira, energia iturri zehatzak. Mendilerrotara jo dute han haizea dabilelako. Men- dietan haizea dabilela denok dakigu. Baina kostaldean, hara- netan... ere haizea badago. Euro- pan eta beste hainbat lekutan haize-errota pilo dago indus- triagunetan eta auzogunetatik hurbil. Hemen haize zirkulazio- en ikerketa seriorik ez da egin helburu horri begira.

Azpeitian, Eusko Jaurlaritza- ko Energia Saileko kargu politiko bati iaz hitzaldi batean hala galdetu nion: "Zarauzko kanpi- nean errota batek ez al luke Gazumen bostek adina energia kopuru emango? Erantzuna: "Bai, baina inpaktua handiegia litzateke". Zeri deitzen diozu inpaktua? Natur parkean haize- errotak jarri eta ohitu egin behar dugula diozue eta Zarauzko kan- pineko errotak hondartzatik ikusten direlako, orduan ez. Argumentazio klase hori ez dugu onartzen.

Eta deszentralizatuta nola izango litzateke erredua?

Beharren arabera egokitutako energia iturri puntualak antolatuta beharko lirateke, seguru asko

kudeatzen zailagoak, baina beharretara hobeto egokituta, eta inpaktu askoz txikiagoa era- gingo lukete. Ez dut esan nahi bestelako erreduekin oraingo beharrak asetzerira iritsiko ginate- keenik, baina bestelako aukera- rik plazaratu ere ez digute egin.

Eredu deszentralizatuari segituz, sarri entzuna da irtenbide gares- tiak direla, esate baterako, etxean jarritako eguzki plakena.

Egia da. Baina ez delako horre- lako erreduetan aritu nahi. Ener- gia iturri puntual txikiak arazoa dira orain. Horrek ez du esan nahi teknologiarik ez dugunik horretan hobetzeko, baizik eta dirurik ez dugula horretara bide- ratu nahi. Konplikatuia izanaga- tik bidea hori da.

Haize-errotak natur parkeetan jar- tzen direla esan duzu lehenxeago.

Ia denak daude LICetan (Euro- par Batasunak ezarritako babes arauak) eta natur parketan, men- dilerroak hartu dituztelako. Ara- ban tramitatzen ari diren hirurak (Cruz de Alda, Iturrieta eta Arkamo) LICak dira eta Gazu- me ere bai. EAEko Lurralde Antolaketaren egitura oso hier- arkikoa da. Legedi horren parean Naturaren Kontserbazio Legea eta Europar Batasunetik datozen araudiak daude.

Kontua da Lurralde Antolake- tarako legedia hain dela anbigua, haize-errotak babestutako edo- zein tokitan egin daitezkeela gaur egun, besteak beste Europako legediaren moldaketa egiteke dagoelako eta kontserbazio arauak eta neurriak oraindik gau- zatu ez direlako LICetan. Gure galdera hau da: Naturaren Kontserbaziorako Legearekin zer ari gara babesten? Hasieran esan dut, finkatu dizkiguten energia beharrak ez ditugula onartzen, eta gainera, dagoeneko planteatzen ari zaizkigu babestutako eremu- tan horrelako eragin agresi- boak dira. ■

INGURU ABENTURA

- Arroila Jaitsierak
- Espeleologia
- Zubi saltoa
- Eskalada
- Via Ferratak
- Mendi ibilaldiak
- Elur erraketak
- Orientazioa
- Mendiko bizikleta
- Multiabentura
- Ikastaro teknikoak
- Abentura bidaiak eta askoz gehiago...

www.inguruabentura.com
info@inguruabentura.com

- Descenso de Cañones
- Espeleologia
- Puenting
- Escalada
- Vías Ferratas
- Banderismo
- Raquetas de nieve
- Orientación
- Mountain bike
- Multiaventura
- Cursos técnicos
- Viajes de aventura y mucho mas...

Tel: 635 748 048
 San Juan 18
 Albeniz - Asparrena
 Araba